



Euskaleriko berriak

Guzikikoak.

Ostikolarfi euskaldunak.—Orain aldixto Ameriketara joan ziranak, Buenos Aires'koekin jokatzera, lenbiziko partidua galdu egin zuten, lau ta utsa gelditurik, bigafenean bana gelditu ziran berdinean, eta irugafenean emengoak irabazi lau ta utsa gelditurik; oraindik geyago jokatuko dute. Ogei mila lagun bai omen ziran azkeneko partidua ikusten. Ango euskaldunak oso afera ona egin die emengoak.

Estropadak.—Datorien Agoñean urtero bezela estropada edo regata aundi batzuek jokatuko dira Donostian, eta ona emen ipini dituzten sariak: Lenengo estropadetan.

- 1ºg. 5.750 peseta.
- 2ºg. 5.000 »
- 3ºg. 2.250 »
- 4ºg. 1.750 »
- 5ºg. 1.250 »
- 1ºg. 2.500 » } berarizkoak.
- 2ºg. 1.750 »

Bigafen estropadetan (onenezkoan):

- 1ºg. 8.500 peseta ta sedazko bandera.
- 2ºg. 3.000 peseta.

Bateletako estropadetan:

- 1ºg. Elkano kopa ta urezko lau domino.
- 2ºg. Gipuzkoa kopa ta zilafezko lau domino.
- 3ºg. Donosti kopa ta brontzezko lau domino.

Gañera egun aetan izango dira Elkano jakak, ifiñe ta artzai taldeak (konparsak) eta beste asko.

Diputazioak izan du bere batzara ilaren 2'an eta *Romisio Probintzial* eko buru edo lendakari Vicente Lafite jauna autatu dute.

Soldaduzka.—Sizilia'ko bataloi bat laister etorriko dan susmuru biziak dabil.

Injenierietatik berogelaren bat soldadu joan dira Afrikara, angos utsu-neak betetzera.

GIPUZKOA

Mendi auziak.—Gipuzkoako mendi asko ez omen daude beaf bezela eta Diputazioa ta efi batzuen artean auzia dabil, batez ere Berastegi, Lizarza, Leaburu Belauza ta beste efi batzuetan; efi mendiak banatu dirala, batzuek bidegabe jabetu dirala, biarko egunean efiak mendirik gabe geldituko dirala, abererik eukituzerik ez dutela izango basefitaik eta nik ez dakit ofelako beste zenbat entzuten dan. Ez bata ta ez bestearen alde atera gabe, guzian ona ta lege zuzena nai litzake beti.

Afantzaleak.—Asturias aldera joanak dira asko urtero bezela atunetara, baña egoaldi txara izan omen dute aurreko egunetan eta gutxi arapatu. Zori ohea.

Alegi.—Efi onetara etofi dira Felix Montoya j. bere familiarekin eta Florenzio Gastesi j.

—Uztaren 20'ean ezkondu ziran Lafaitz'en Pepita Gerediaga a. ta Jose Domingo Rodrigo Zabaleta j. zegañara. Eliza eta Dotriña gauzetan lan asko egiten zuten neskatz edera zan Pepita. Jainkoak lagun bizay.

Alza.—San Marzialetakoa jai edera izan dira 29, 30 ta 31'n.

—Aguzila beaf da efi onetan, gipuzkoara ta euskeraz dakiena. 2.500 peseta ta etxea emango zaizkio urteko.

Aretxabaleta.—Uztaren 23'an eman zuten bere lenengo Meza emengo Elizan Buenabentura Alberdi, Aita prantziskotarik. Elizkizun edera izan zan.

Afasate (Mondragoi).—Uztaren 27'an il zan Martin Garai j. Esteban kontzejal jaunaren aita, bere 79 urtetan; 51 eguneko semetxo bat il zitazyon Franzisko Mendizabal jaunari. Goyan bego.

Ataun.—Prantzi ta Noruega aldera joan zan Jose Zubizafeta sendagile jauna bere emaztearekin.

—Laister ezkontzeok omen dira Luisa Imaz a. ta Jose Antonio Zurutu-

za j.; baita ere Ramon Lasa j. ta Justa Apalategi a.

—Bere 28 urtetan il zan Maria Armentariz a. G. B.

Arona'n baseri bat salgai.

SOKOLO basefia bere bazter edefakin aterako da zeñek geiago demanari (subastara) Arona'ko Udaletxe edo Ayuntamientoan. Agostuen 6'ko igandean, goizeko amaiketean.

Beste jakin gaitako zuzendu: Juan Uria :: Estación Arona

Arona.—Emendik esaten digute Santa Ana'tan izugarizko jai edefak izan dituztela, batez ere dantzak; Aruako efiakan dantzari yayauk omen dira ta zaletasun aundia dantzarako ta salta-jokurako, baña oriek dauden tokian ez omen da falta afokeri ta pantasirik. Guri ere ala iruditzen zaigu, dantza ta salto geyegiak buru arina adierazten du.

Azkoiti.—Santiago egunean De Nys'en laisterka jokua ta bi pelota partidu izan gentun; goizean Azkoitiko Txikia, Urzelai ta Juaristi III'ak, Etxabe bi anaiei, ta oek galdu 13'kin gelditurik 22'ra; afatsaldean Fernandez ta Ansola'k, Azkoiti'ko Txiki II eta III'garñei, azkoitiarik galdurik.

—De Nys'en korika apustuak amaika gizaizoren diruak iruntsi ditu; ñoiz esnatuko ote dira? Azkoiti'k Azkarate gañera 22 minutuan egin bayetz, zan apustua (orain arte 26'ean dago marka) eta 24 minutu ta 38 segunduan egin zuten De Nys'ek, beraz galdu. Jende asko bildu zan.

—San Inazio egunean Mitterer'en Meza edef bat abestu zan, izenez *in honorem S. S. Sindonis D. N. J. C.*

Bidani.—Agustuaren 10'ean izango dira San Lorenzo'tako periyak, eta gañera ilero-ileroko egingo da periy bat, bigafen ostegunetan.

Uztailaren lenengoatik dabil *automobil* bat Oyarzun'go plazatik tranbeko estazioara joan-etofia, tranbeakin alkaf aintza, *ordutik ordu-ra, goizeko 6'etatik gaueko 9'ak arte.*

DONOSTIATIK OYARTZUNGO ERIBARNO
149 peseta joan etofia.

Donosti.—Loyola'ko auzoan jai aundiak egiten dituzte San Inaziotan, pelota partidu edefak, bersolariak, estropadak, toka-apustua, e. a.

—Eskoletako mutil talde bat Segura'ta eta beste bat Bergara'ta joatekoak ziran mendi aizeak artzera.

—San Inazio egunean efi boteko partidu edef bat jokatu zan Atotxako plazan, Lemoine, Agife, Mitxel, Patxola ta Txantako Sarakoak batetik, eta Enbil aita-semeak, Rekondo, Urkia ta Zubietako Txikia gipuzkoarik bestetik; gipuzkoarik irabazi zuten 13'ra Saratariak 9'an gelditurik Enbil ta Lemoine, bi zafanak, artu zituzten txalorik geyenak; Txantako'ren sake zofotzak ere etziran makalak izan.

—Urumea ibayan gizon bat itorik arkitu dute, Juan Agifesarobe, 42 urkoa, kale garbitzalea, ustez gabez eroria noski.

—Kursaal edo kasino befi aundi ta edera iriki da jai aundiak efiñaz.

—Alvear jauna, República Argentina'ko Presidentea Paris'tik Santandera bidean Donostian izan zan asteafetan eta afera aundi bat egin zioten; emen itxas-ontzi batean sarturik Santandera joan zan Ezegearekin egotera.

ARDAO nafar aundiak, ezertariko naste bagekuak, saltzen dituzte nora-nai **GALASTEGI TA LAGUNAK**

Uztuzkiña 204, DEBA

Eibar.—Arnak saltze-kontuan aldi luzean ibili ondoren etofia da arnoz-efirik Jenaro Kruzelegi j.

Eferteri.—Biteri kalea alkitranatu dute, ederki gelditurik; baita ere asi dira efiaka ondo ipintzeko lanetan.

—Legorte onekin ur gutxitxo dago efiarako.

—Lagun-Artea ta Euskalduna'ren arteko ostiko partidua galazi du alkate jaunak, ixkanbila ta gofotua sortzen zalako.

—San Markos'en petroleo minak arkitu omen ditu Kruz Zuloaga jaunak eta luñak artu ta itxi ere bai.

—Jose Maria Etxeberia jauna, emengo koadjutorea bere 72 urtetan il da. G. B.

Ibaña.—Tolosa'ko tradizionalistak urtero bezela jai aundiak izan zituzten emen San Inazio egunean, jende asko bildurik; gauean Tolosa'ko beren baztokia edo soziedadean gau-jaya egin zuten, itz efiñik Pradera, Oreja ta Paguaga diputadu jaunak.

Irun.—Ezkondu dira Jose Maria Agife j. ta Karmen Miota a.

—Aduanako kargua irabazi du guzian aufferik Karlos Añegi jaunak.

Lazkano.—Praleak nagusi beña autatu zuten, Gracy j. eta Obispo antzera jantzirik eman zuten lenengo Meza Karmen egunean.

Ondarabi.—Automobil batek, itaila giari, arapatu ta elbañturik utzi zuten portuan, Santiago kalean Bibiano Arbelaz j. 26 urtekoa; sendatuko da noski.

Oñati.—Emengo gazteak igandetan baztarik bezaf gaizki zebiltzala eta aitezki ofekin musika igandero jotzeko eskatu zuten batek *Pueblo Vasco*'ren bidez, ta ez nola nai, gaueko amafak arte baizik, gaizki ez ba'gendun irakurri beintzat; ARGIA'n esan gendun ez zitzaigula ondo iruditzen gaueko musika igandero, eta gu ez gero musikaren etsayak, ordu ta eferitro itxafenak baizik; musika beaf ba' da, egunez izan bedi, gaua etxean egoteko efiña da; ñala ere gazteak gauez baztarfetan dabilzala? Gurasoen erua izango da, eta musikaren aitzakian geyago ibiliko lirake, bestetan gerta oi dan bezela. Oñati'k orain arteko izen ona galduko du bide ofetatik eta gurasoak ikusiko luteke beren begiz ortik letofien kalera, eta kontuz ibili, gazte arin batzuen esanak alde batera utzirik.

—Txapelduztako (kanpeonatoko) pelota partidu edefak jokaten dira; 25'an jokatu zan Afalde ta Igartua, Iruarte ta Oleaga'ren kontra, lenbizikoak irabazirik 22-20 gelditurik; ondoren Elorza-Arkauz Urbari-Kortabariaren kontra, lenengoak irabazirik. Jendea kontentua.

Orio.—Gobernuak eman ditu lenngoaz gañera beste 70 mila peseta bafara ta portuko lanetarako.

Oyarzun.—Danbolin sariketarako izena eman dute Irun, Ondarabi, Andoain, Bilabona, Tolosa, Ernani ta Eibar'koak.

—Abertzale edo nazionalistak baztarfak egiten ari dira, alkartu ta indar aitezko.

Tolosa.—Korazonisten Eliz beña aurreko igandean irikitzekoa zan, baña Obispo jaunak etofia nai omen du eta egun ofetan ezifnik, Agustuaren 6'raiko utzi zuten, beraz igandean irikiko da, 6'an. Elizkizun edefak egingo dira, eta Aita Iruarizaga musikalarri ospatua, beste efi ta nazioetan ezagutua danaren Meza entzungafi bat abestuko da, abeslari talde aundi eta edef baten bidez.

—Merkatua: oloak 10-12 p. bi; olaskoak 6-8 p.; arautza 2,85 p.; arku-meza 25-28 p.; idiazabal gazta 5 p. kilo; beña 3,50-4 p.; konejuak 6 p. bi; babafun zuri ta gofia 80-90 zentimo kilo.

Urnieta.—Roma'n lau urtean ikasten egon, eta Teoloji eta Filosoñ'an Erakusle (Doktor) tituluar artu ondoren Roma'tik etofia zaigu gure efiakoseme Maximo Yufamendi j. apaiz ordendurik. Roma'ko ikastun guzian aufenetakoa zan, eta angos erakusle aundi batek, Aita Huarte jesuitak zion, angos bi urri onenetako, azkarfentako bat Yufamendi ikaslea zala, eta Gipuzkoako seme aundienetako bat

izango zala, Gipuzkoari aintza eman-go ziola.

San Inazio egunean berak eman zuan Meza nagusia, eta azkenean Aita Santuaren Bendizioa ere bai, eta Mezatan izan ziranefi amaiketako bat eman zien. Zorionak.

Zegama.—Aurreko ilaren 18'an izan Aprikan, gaxotegian, Sizilia'ko gudari ta emengo seme Arfeta'tar Demetrio, eta 29'an egin zitzaizkion emen gon-goneko iletak. G. B.

—Urbiko artzayak ez daude oso goatsu; noiz azariak, noiz zakur galduek, ardi ta abereetan kalte aundiak egiten omen dizkie.

—Uda-aldixto bat emen igarotzera etofitakoak: Paris'tik, Etxeberia'tar Maria ta Marzela aa.; Donosti'tik Otegi'tar Santiago apaiza ta anayak, eta Ormazabal'daf Martin j.; Bilbao'tik, Irizar'tar Pilar a.; Iturmendi'tik Asurmendi'tar Nemesio apaiz-gai on eta azkara.

Zumafaga.—Emen degu gure urteroko udazale Buska'tar Inazio, eresegile jakintsu gizon ospatsu ta atsegina. Izazpi'ko aizeak ongari bekizkio.

Zumaya.—Bilbao'ko Elkarte edo soziedade bateri 600 peseta ustez ostu zizkion bat arapatu dute emen, Gregorio Ginon.

BIZKAYA

Diputazioak orain arte bere eskuz kobratzen zitun petxa edo inpuestoak, tarteka enpleatu bat efiatara bidaliz, baña efiatasun geyago ematefaren, emendik auffera Udal edo Ayuntamientoan ordaintzea erabaki du.

Feri aundia. Bilbao'n Santiagotan urteroko ferri aundiak izan ziran eta ona zer egin zuten:

Lanerako idi pareak	1.150—2.500 Pta.
Gizentzeko idi	295—440 »
Idi gizendua	550—960 »
Esne beña	465—2.700 »
Gizentzeko beña	270—420 »
Gizendutako beña	540—890 »
Txeokofak azteko	285—575 »
Esne txeokofak	180—485 »
Zaldiak	65—290 »
Astoak	155—2.100 »
Txeñiak	45—450 »
Txeñi-kumeak	185—395 »
	40—195 »

Jende ta abere asko izan zan, eta saldu ta erosi ere asko egin zan.

Bilbao.—*Liga Monarquica*'ko sekretario izana, Mateo Unamunzaga beste batek tiroz il du; Basurto'ko eritegira eraman eta bereala il zan. Goyan bego.

—Sekretarioak bazkari aundi bat egin zuten asteazkenean beren Araudi edo Reglamentua egin zan urtebetetzea jaitzeagatik.

Hermes'ko zuzendaria, Jesus Sarfia jaunak burutik aldi txarraf eman eta leyotik kalera salto egin eta ilik gelditu da. G. B.

—Emendik Madrid'era automobil bat atera zan, azkafen ibiltzeko asmoetan eta emendik arakoa 5 ordu ta 25 minutuan egin du; ofen azkarrik ez da oraindik izan.

—Langile batzuek (sozialistak) beste batzuel tiroka asi ta bat il ta 3 zauritu dituzte; ñla gipuzkoara da Juan Altogaire.

—Sota-Aznar'en itxas-ontzi aundi bat, izenez «Aya-Mendi» sei mila toneladakoa, orain bi urte efiña eta erosi beña, Inglatefetik zetofela bidean Itali'ko gefa-ontzi aundi batek jo du eta bereala ondora joan da. 33 gizon ziran baruan eta bat iio da, Mariano Berastegi, Ibarangelukoa, ontziko mayordomo edo ornikaria; besteak onik.

Durango.—Burnibide lanak auffera dijoaz eta laister ikusiko ditugu trenak kale erditik.

Ondarabi.—Itotako 9 afantzaleren familien alde suskritzio bat iriki du efiak, eta baita ere Bilbao'ko periodikuetan.

NAPAÑO

Bera.—Agustuaren 2'fik 8 arte urteroko San Estebanetako jakak dituzte efi onetan; pelota partidu edefak jokatuko dira.

Iruña.—Alkate ta zifnegotzi edo kontzejal batzuen artean asafea dabil. —Gobernuak azukre auzotan orain arte baño diru geyago kenduko dio aufferantzean Napañoari, inpuesto bezela.

—Efiibera aldean trenak lotatzen dituzten txingarfatetik sua sortu eta giari soru ta lasto-meta aundiak efi dira.



Beste erietako berriak

«Sizilia» Aprika'n.

Ez degu ezefer befirik oartu astebete onetan, beti bezela daraigu gure lan eta lekuetan.

—*Alto Comisario* befiya autu beaf zala, eta lengoak itzezin beaf zuala Madrid'en, eta abaf, ez zaizkigu nai ofduko eldu izperingiak; baña autatze befiak gure alde joko dualako ustean, zerbait ñalitu, zerbait itxedon-erazten digu. Irakurleak daki noiztik gazozen onelako gauzak. Gogoratzen naiz Nadof'tik azkenngo aldiz igaro gifiñean nola nion: «Nadof'eri agur... ¿betiko?» izan ere, unetik-unera, besterik ez daukagu gogoan, Euskal efi maitea baizik, baña ¿zer egingo degu alakoa baldin bada, gure ustea agerfu baño?

—Beñero jari gera aufferan ditugun jayeri begira; egun abetan, Matala Donea'ren opaz, Eferteri, Motriku ta geyagotan; geroago Jagoba (Santiago) Donea dala-ta, Pasai, Zubieta, Amasa, Aizarna eta bestetan; baña, batez ere, Inaki Deuna'ren egunean, eusko-erri guztiya gutxi edo geyago, gutzi-guztiyak, aintzatuko dute gure Donea. Pozez eta itunez, aldi-berean, dakusgu nola jaitu duten Azpeiti eta Andoain'en berariz, eta baita ere, txil egoki, gañerakoetan, Euskal efiaren Zaitzari, eta etxeko Done aundiya, jayo zan efiaren aundizalea. Pozez, bai, geyenean of degun bezela. «etxe-koa» aztuta ez dagola oartzen degunean; eta itunez, guk, gure biotzaren naya, bete ezifnik, katez lotuta bezela ikusten geranean. Ez degu utziko, ofegatik, efiñala egin gabe, onikonean, euskotar morfodaxka onek egun ofetan.

—Gaxotegiratu da beñero, Koniko'tik, Lazkano'tar Pantzeska, Bergara'tara, gure lagun maitea, ajola gutxiok efirozte batekin; lenbaiten osatu bedi.

SIZILIA'KO GUDARI BAT

Koniko'an 1922'ko Uztaila'ren 25'an.

Gaxotegietan.

Reina Victoria gaxotegian.—Juan San Sebastian. Ajola aundi gabeko zauriak, obeto. Eferenderia.

José Urkola. Zingira-erriakin, obeto. Anoetafara.

Silverio Izagife. Gaxotasun arifia, obeto. Donostiafara.

Jesus Bastarika. Este-kutsuakin, obeto. Donostiafara, Miracruz.

Eugenio Sagastume. Gripe arifia, obeto. Zarauztafara.

José Goya Plazaola. Este-kutsuakin obeto. Gabiriafara.

Francisco Lazkano. Zingira-erri arifia, obeto. Berara.

José Mayoraga Agife. Este-kutsuakin il da. (Goyan bego.) Ormaiztegiara.

Ignacio Arantzadi. Este-kutsuakin oso gaizki dago. Seguratafara.

José Lazkano. Zingira-erri arifia, obeto. Aizafnazabal'dara.

Antonio Garayalde. Bronkitis arifia, obeto. Legofeta'ra, «Monjuri» basefira.

Central gaxotegian.—Cirilo Armentariz. Obeto. Tolosa'ara.

Segundo Ugarite. Gaxotasun arifia, obeto. Legazpitafara.

Pablo Agifebeña. Obeto. Berara.

Juan Jpafagife. Este-kutsuakin, obeto. Motrikoara.

José Kerejeta Orue. Zingira-erriakin, obeto. Azpeitiara.

José Azkue. Urdalekoakin, obeto. Zumayara.

Cecilio Beña. Efeuma arifia, obeto. Donostiafara.

Anastasio Mujika. Gripe arifia, obeto. Zeraindara.

Juan Orbegozo. Zingira-erriakin, obeto. Zarauztafara.

Juan Zurutuza. Este-kutsuakin, obeto. Aramatafara.

José Aruti Etxabe. Este kutsuakin, obeto. Aizafnazabal'dara.

Francisco Elda Otaegi. Zingira erri arifia, obeto. Bidanitarara.

Gar bizitan.

CIUDAD REAL.—Goizeko zortizetan izugarizko danbada entzun da efiari. Etxe batean dinamita ta beste-lako lefiagatik gorfetzen zirala-ta, bat-batean aiek lertu ta sutea izan da.

Zenbait emakume danbateko entzunda, gafetan bildurik, ero gisan

kalera atera dira. Batzuek ateratzeko denborarik ez ta barunbean kiskaldu-rik geldituak dira.

—Naiz soldaruak' sua itzaltzeko asmoz etofia, ta naiz efiñal guztiak egin, ur naikoa ez zegoelako ta itzaltzeko ifresnak balio'ez zutelako, etxe guztiak gar bizi, aundi, bakara, zirudien.

Etxeratzea.

1919'garñen urteko soldaruak etxera ekari beaf omen dituzte, aien tokian 1920'garñekoak sartuko dira.

Lapur yayoak.

Eioma'ko tokirik ageriñean, tranbi-geltoki aundi baten aufferan, ta beti bi poliziako egoten diran tokian, lapurketa arigari bat izan da.

Afatsaldeko ordu bat eta efiñtan, irurak arte idikitzen ez zan denda baten atearan kontfira, bi lagunek baula bat utzi zuten.

Lef eginda gaude—esan zieten poliziakoeri—ta gauri baten bila goaz baula etxera eramateko.

Ta berekin zijoan atso aurra zuanari esan zioten:

—Alik eta gu etofia arte baula au zai zazu.

Atsoa baularen gafean exeri ta aufferan kafaxiak ixildu zitzan beran magalean erabiltzen asi zan. Luze xamar igarota, azkenez lengo bi lagunak azaldu ziran, baula ariu ta atsoa ta aufferekin batean eraman zuten.

Zilarfegiko gizonak denda idiki bafetan poliziakoak aruntz onuntz ibili ziran. Ta zilarfegiak arigafizko lapurketa oartu zuan. Auxen izan zan gefitatu zana:

Baularen bafenean adizkide bat zuten gordea, ta baula alde batetik idikiat, sefarekin atearan panelak autsi zituan, ta geldiro-geldiro dendan saiftea al izan zuan.

Ariskoaren auffer, opofik batez.

Asturias'en nagusien eta langileen arteko opof bat zuten. Ta ofa orain gauzak okefeko aldera jota, guztiak, nagusiak eta langileak, alkartu dirala.

Gobernuak Inglatefari miloi bat tonelada arikat ezkaitezko baimena eman duala, ta arikat guzti orri ekarita Asturias ondatuko litzakealokan, opofa alde batetik utzita Gobernuaren atzetik dabilz batzuek eta besteak.

Lan egitetik geratuak diran langileak munduan 30 miloi dira.